

JOXEAN MUÑOZ KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO GUNEAREN
ZUZENDARIA

Guk herri honek izan ditzakeen hutsuneei begiratu behar diegu

Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunearen esparrua zehazturik, etapa berria hasi du Muñozek; orain, lana kontuak egitea eta proiektua gizarteratzea izango da

Ainara Gorostitzu. Donostia.

Jendetza bildu zen herenegun Tabako Fabrikan, KGNGren proiektuaren aurkezpenean. Agintariak eta kulturgileak. Atzo zaindariak eta langileak bakarrik zeuden. Eta Joxean Muñozek (Donostia, 1957) beste lasaitasun bat erakusten zuen: Bart, gutxienez, lo egin dut.

Nolako lana izan da proiektua egitea?

Zailena definizio orokorra lortzea izan da. Une honetan esparru bat dugu: zer alor landuko dugun eta alor batzuek besteekin zer lotura izango duten zehazten duen esparrua. Zailenak gure alorrak ez direnak izan dira; esate baterako, zientziarena. Alor horietan zailtasun handiak izan ditugu, kulturatik gatozen jendea garelako eta zientzia ezezagun egiten zaigulako. Hizkera diferentea dugu bi aldeok. Itzulpen zerbitzu orokor bat izango da Tabako Fabrika, batzuek eta besteok erabiltzen ditugun hizkuntzen arteko zubiak egin behar direlako. Alor guztietan adituen laguntza izan dugu, eta hemendik aurrera sakonago landuko ditugu alor guztiak.

Zeuk aipatu duzu zientzia kulturako jendearentzat arrotza dela... Nola ulertzen da alor hori KGNGren barruan sartzea?

Ezin du zientziak kulturako jendearentzat arrotza izaten jarraitu, hori da desafioa. Zientziak gero eta gehiago erabakitzen du gure eguneroko bizitzaren norabidea, eta herritarrok ez daukagu zientziaren aurrean inongo diskurtsorik, ez dakigulako horretaz deus ere. Hemen ez gara ari zientzia egiteko leku bat proposatzen, baizik eta zientzia gure eguneroko jakintzan txertatzeko gune bat. Zientzia komunikatzeko garaian ere arazo bat dago, ez gara denok egingo zientziaren hizkuntza itxi horren jabe, baina horrek ez du esan nahi ezin denik beste era batean kontatu zein den zientziaren ikuspegia. Hori da saioa, zientziak egiten dituen gauzak orain arte kultura esaten dugun horretan txertatzea. Zientzia gelditzen baldin bada bere alor espezifiko eta itxian, besteok ezingo dugu iritzia eman, ezin dugu ulertu horrek zer ondorio ekar dezakeen. Orduan erabat kanpo geratzen gara, erabat akritiko, sinesmenaren terrenoan. Gu letretan hezitako belaunaldikoak gara, baina badator mundu digitalean sortutako belaunaldia, eta horientzat zientzia eta teknologia askoz gertuago daude.

Gastronomiak proiektuan duen lekuak ere zalantzak sortzen ditu.

Sukaldariek alor zientifikoarekin lan egiten dute, gauzak galdetzeko lotsarik ez daukatelako, truke horiek naturaltasun osoz egiten dituzte, eta Tabako Fabrikak lotura horiek bultzatu behar ditu. Guretzat gastronomia inportantea da, batetik hemen zerbitzu gastronomikoak egongo direlako, eta garbi dugu jatetxe hori ezin dela nolanahikoa izan, gure sukaldaritzarekin lotura izan behar du. Baina guk zer egin behar dugu, aisialdirako leku bat jarri eta kito? Ez dauka gastronomiak kulturarekin zerikusirik? Euskal Herrian jende batek gauza oso bereziak egin ditu egunerokotasun horretatik, eta mundu osoan ezaguna da. Gainera, kanpora begira, gastronomia eta Euskal Herria oso lotuta daude, Euskal Herriak kanpoan ikusgarritasuna izan dezan dauzkagun baliabide guztiak erabili behar ditugu, eta gastronomia, dudarik gabe, oso baliabide fuertea da.

Proiektuan Artelekuren esku-hartzearen falta sumatzen da. Arteleku zuzendaritza finkorik gabe egoteak eragin du hori?

Beti esan dut Arteleku nahitaezko erreferentzia dela guretzat. Ildo horietan gu baino lehenago aritu da lanean. Gu, ordea, jendeari beste modu batean zabaldu behar gatzaizkio. Ez dago dudarik elkarrekin lan egin behar dugula. Hori zertan zehazten da? Arteleku hona etorriko da? Arteleku desagertu egingo da? Hori ez da nik esan dezakedan gauza bat, hori inposizioa eta absortzioa izango litzateke. Hori beraiekin hitz egin behar da. Hori joan den urtean egiteko asmoa genuen, hasieran Santi [Eraso] gure ekipoan zegoen, gero bere bizi asmoak aldatu eta Arteleku uztean, nahikoa lan izan dute han trantsizio fase honetan beren burua antolatzen. Orain beste ekipo bat etortzean ikusiko dugu nora irits gaitezkeen elkarrekin. Gure esparruan gaur egun Artelekuren jarduna kabituko litzateke, eskaintza hori egin nahi genuen. Kontua da zer galtzen eta irabazten den hori eginez gero, hori baloratu behar da orain.

Orduan zehaztuko da gehiago arte garaikideari eskainitako alorra?

Bai, zeren Arteleku da horren faktore bat, beste hamaika faktoreren artean. Zehaztu behar da zein den gure posizio zehatza. Zehaztasun horiek guztiak jendeak programak aurkezten ditugunean ikusiko ditu, ireki baina bi urte lehenago. Orain ardatz orokorrak zehaztu behar ditugu, teorikoak. Arriskuko esparruetan sartu behar dugu, jendearen ahalmena eta nahia sustatu behar dugu, horregatik diogu Tabako Fabrika ez dela sortzailea, baizik eta produktorea, sortu jendeak egingo du, kolektiboki, Tabako Fabrikak bitartekoak emango ditu sormena posible egiteko. Artelekun gauza asko egin dituen belaunaldi bat badago, Ibon Aranbarrirena-eta, eta jende horri zerbait eskaini behar dio Tabako Fabrikak, aurten zehaztu behar dugu zer.

Euskadiko Liburutegiaren proiektuan parte hartu duzue? Nola eragingo dio KGN Gri liburutegia Tabako Fabrikan egoteak?

Zer izan behar duen eta zer ez duen izan behar Gobernuak erabakitzen du, guk ez daukagu zer esanik. Guretzat, proportzioak gordez gero, Euskadiko Liburutegiari leku bat uztea oso egokia izan daiteke. Guk ere egin behar ditugu digitalizazio politikak, digitalizazio horren distribuziorako politikak... Liburutegia gertu baldin badaukagu, sinergiak eta elkarlana askoz errazagoa izango da. Horrez gain, balio sinbolikoa emango dio lekuari.

Ez dago beldurrik Tabako Fabrikari gehiegi lotuko zaionik?

Beldurra ez, nik espero dut asko lotzea. Espero dut Euskadiko Liburutegia izatea ahalik eta digitalena, ahalik eta gehien munduari eta datorrenari begira egongo den gunea. Ondareari begira, herri bezala, gure behar handiena aro digitalari erantzuten jakitea da.

Hurrengo fasean, zein da aurreneko lana, kontuak egitea?

Hipotesiak egin behar dira zenbat jende behar den, ze programa egin nahi diren, programa horiek ze numero dituzten inguruan... eta behar ditugun numero guztiak nondik etor daitezkeen. Nik ez dut uste denak kultur departamentuetatik etorri behar dutenik, bai Euskal Herriko erakundeetatik, bai Espainiatik, bai Europatik etorri behar dute, baina baita enpresa pribatuetatik ere. Hala ere, hemen hiru erakundeek [Donostiako Udalak, Gipuzkoako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak] hartuko dute, baina hemen egingo ditugun gauzak ez ditugu guretzat egingo, besteentzat erabilgarri izango diren gauzak egingo ditugu. Komunikazio sare baten barruan gaude, eta herrigintzako lan bat egingo dugu.

Hortaz, herri honen hainbat arazo konponduko ditu?

Herri honek hainbat arazo planteatu behar dizkio bere buruari. Konpondu? Nahi luke, baina ez, urratsak egingo ditugu. Gauza batzuetan oso ondo gaude, baina beste gauza batzuetan oso atzeratuta gaude. Gauza askotan ari gara lehen gelditu zitzaizkigun hutsuneak osatu nahian, baina hutsune berriak datozkigu, eta guk herri honek izan ditzakeen hutsuneei begiratu behar diegu, beste batzuk egongo dira izan ditugunei begira.

Proiektua, gizartera iristen ez bada, erori egingo da. Oraingoz behintzat, ez dago garai batean Guggenheimekin egon zen bezalako sektore kritikorik; izatekotan, eszeptikoak daude.

Alde horretatik guk abantaila bat eta desabantaila bat dugu: Guggenheimek marka handi baten ahalmena eta erakargarritasuna zituen, gu inkognita bat gara. Gure kasuan ez da egin proiektu bat, trinkotu, ondo lotu eta gero jendeari azaldu... jende askorekin egin behar dugu lan hasieratik. Interlokutore berriak atera behar dira. Kultur mundukoez gain, zientziakoak eta enpresa pribatukoak. Kulturgintzan ibiltzen den jendea da gure publikoa? Eta CAFera, Irizarrera, Zamudiora egunero lanera joaten den jendea kulturatik kanpo dago? Horiek erabakitzen dute nola mugituko garen... eta, gainera, gu baino berritzaileagoak dira.